

MATRIKULA ZAITEZ BIZKAIKO EUSKALTEGIETAN

MATRICÚLATE EN LOS EUSKALTEGIS DE BIZKAIA





Zatoz euskarara kanpainaren helburu nagusiak bi dira: batetik, helduen matrikulazioa sustatzea Bizkaiko euskaltegietan 2014-2015 ikasturtera begira, eta bestetik, euskaltegietan arian-arian euskalduntzen diren herritarrak eta gizataldeak animatzea euskara eguneroko bizimoduan erabil dezaten euskaltegitik kanpo, edozein gizarte-esparrutan.

Helduen euskalduntzearen sarea Bizkaian

Helduak euskalduntzeko eskaintza guztiz oparoa da gure lurraldean, euskaltegi publiko nahiz pribatuei dagokienez. Hala, sare publikoa **21 udal euskaltegi**z osatuta dago, oro har, Bizkaiko herri populatuenetan banatuta. Sare pribatua, berriz, **45 euskaltegi**z osatuta dago eta eskaintza joriena Bilbon metatzen den arren, Bizkaiko herri gehientsuenetan ematen dute zerbitzua.

2012-2013 ikasturtean, ia 18.000 ikasle aritu ziren euskara ikasten Bizkaiko euskaltegietan (33.000 EAEkoetan). Horietatik % 30 inguruk (% 27 EAEn) euskaltegi publikoetan ikasi zuten eta % 70ek (% 73 EAEn) euskaltegi pribatuetan. Guztira, aipatutako ikasturtean, 4.026.743 ikasle-ordu eta 351.462 talde-ordu eman ziren gure lurraldean. Bestetik, datorren ikasturteko matrikulazio-datuei begiratuta (matrikulazio-aldia ez da amaitu), esan dezakegu helduen euskalduntzearen inguruko datuak oso-oso antzekoak izango direla amaitu den ikasturtearekin alderatuta.

Euskaltegien eskaintza, hizkuntza ikasteaz haratago!

Jakina denez, euskaltegien jarduera euskara 'ikastearekin' lotu ohi dugu, hau da, hizkuntzaren jakintzarekin. Eta hala bada ere, ikasitakoa euskaltegitik kanpo erabiltzeko hainbat jarduera zehatz ere antolatzen dira euskaltegietan, hala nola, **BERBALAGUN** eta **GURASOLAGUN** programak, merkatarientzako, gurasoentzako edo etorkinentzako ikastaro bereziak, mintzapraktika saioak... Horiek guztiek bide ematen diote ikasitakoa kalean, lagunartean, saltokietan, udaletxean, familian... erabiltzeari.

Sustatzaileak eta hartzaileak

BFA eta EUDELekin batera, ekimen honen sustatzaileak Alkarbide bilgunea (Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea) osatzen duten udaletako euskara zerbitzuak eta gure lurraldean helduen euskalduntzean diharduten eragile publiko eta pribatu guztiak dira, hau da, lehen aipatutako euskaltegi-sareak. Hartzaileak,



berriz, Bizkaian euskaraz ez dakiten herritarrak eta euskalduntzen ari direnak ditugu, gutxi gorabehera, 700.000 lagun.

Zabalkunde-euskarriak

Euskararen egunean egin ohi dugun moduan, bi kartel eredu prestatu ditugu, bata ekimenaren irudi orokorra jasotzen duena eta bestea herrian dagoen helduen euskalduntzearen eskaintza iragartzen duena.



Aipatu euskarriak Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bitartez (59) hedatu dira lurralde osora.



Los objetivos principales de la campaña **Zatoz euskarara** son dos: por una parte, fomentar la matriculación de personas adultas en los euskaltegis de Bizkaia de cara al curso 2014-2015, y por otra, animar al alumnado y a los colectivos que se euskaldunizan progresivamente en los euskaltegis de nuestro territorio a que utilicen el euskera en su vida cotidiana, fuera del euskaltegi y en cualquier ámbito social.

Red de euskaldunización de personas adultas en Bizkaia

La oferta de euskaldunización de personas adultas en nuestro territorio es abundante, tanto en lo que se refiere a los euskaltegis públicos como a los privados. Así, la red pública está compuesta por **21 euskaltegis municipales**, repartidos, en general, por los municipios más poblados. La red privada está conformada por **45 euskaltegis** y, aunque una buena parte de la oferta se concentra en Bilbao, dan servicio en la mayoría de los municipios de Bizkaia.

El curso 2012-2013 estudiaron euskera en todos esos centros unas 18.000 personas en Bizkaia (33.000 en los euskaltegis de la CAPV). De ellas, un 30% del alumnado lo hizo en euskaltegis públicos (27% en la CAPV) y un 70% en euskaltegis privados (73% en la CAPV). En total se impartieron 4.026.743 horas/alumno y 351.462 horas/grupo en Bizkaia en el curso citado. Los datos de los que disponemos para el próximo curso (el periodo de matriculación no ha concluido), sugieren unas cifras muy similares a las del curso anterior.

Estudiar en el euskaltegi, mucho más que aprender euskera

Es lógico asociar la actividad de los euskaltegis con el 'aprendizaje' del euskera, es decir, con el conocimiento de la lengua. Y así es en gran medida, pero al día de hoy los euskaltegis ofrecen además múltiples actividades específicas para poner en práctica fuera del euskaltegi lo aprendido en el aula, por ejemplo, los programas **BERBALAGUN** y **GURASOLAGUN**, cursos especiales para personal de comercio y hostelería, inmigrantes, sesiones de mintzapraktika... Todas esas actividades facilitan el uso del euskera en la calle, en la cuadrilla, en los comercios, en el ayuntamiento, en el entorno familiar...



Promotores y destinatarios

Además de la DFB y EUDEL, los promotores de esta iniciativa son el foro Alkarbide (foro que aglutina a todos los servicios de euskera de Bizkaia) y los agentes tanto públicos como privados de nuestro territorio implicados en la euskaldunización de personas adultas, esto es, las redes de los euskaltegis mencionadas anteriormente. Por su parte, las personas destinatarias comprende la ciudadanía adulta que convive en nuestro territorio y desconoce el euskera o se encuentra en proceso de euskaldunización, aproximadamente, 700.000 personas.

Soportes de difusión

De manera similar a la usada en la promoción de los eventos ligados al Día del Euskera, hemos diseñado dos soportes. El primero de ellos recoge la imagen general de la iniciativa y el otro está pensado para anunciar la oferta de euskaldunización de adultos existente en el municipio.



Los soportes descritos se han difundido por todo el territorio mediante los servicios de euskera adscritos al foro Alkarbide (59).